

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Meatzaldea

Natura meategitik sortu zen

Lehen Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Natura, gizarte, kultura ingurunearen ezagutza

ARLO/IKASGAI ERLAZIONATUAK: Heziketa Fisikoa

Ba al zenekien Peñas Negrasen natura meatzaritzak eraldatutakoa berreskuratzen ari dela? Ekoetxea Meatzaldea Peñas Negras-era egingo dugun bisita honetan, meatzaritzaren iraganak markatutako eta birnaturalizazio-prozesuan dagoen ingurune bat ezagutuko dugu. Material interaktiboen, dinamika parte-hartzaileen eta ingurunearen zuzeneko behaketaren bidez, gure ekintzen eraginari, biodibertsitatea zaintzearen garrantziari eta naturguneak lehengoratzearen balioari buruz hausnartuko dugu. Iraganetik ikasteko, naturarekin konektatzeko eta etorkizun jasangarriago bat eraikitzeko esperientzia.